



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko azaroaren 12a

130. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, euskarak Nafarroako hezkuntza-sisteman duen egoerari eta etorkizunera begira sustatzeko politikei buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez Osasun Departamentua premiatzen da ikerketa-espeditente bat abiaraz dezan, Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta errektiboak garraiatzeko zerbitzua ematean ustez izandako irregularitasunak aztertzeko. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (4. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan gidarian REACT Next Generation funtsak erabiltzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroan eskola-garraioak duen kostuari buruzko azterlana kanpoan kontratatzeari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (7. or.).
- Galdera, toki entitateen finantzaketa taxutzeari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (8. or.).
- Galdera, 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalek gastuei aurre egin ahal izatea bermatzeko baliatu diren irizpideei buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (8. or.).
- Galdera, trakzio-ahalmena baliatzen duten udalen determinazioari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (9. or.).
- Galdera, 2022an 2021eko finantzaketa bera mantenduko duten udalei buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (9. or.).
- Galdera, txertoa jarrita izan arren COVID-19az kutsatutakoei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, talde ezezagun baten erasoak pairatu duten mugarrak leheneratzeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (11. or.).

- Galdera, Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, barne medikuntzako albokoen kontratuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (12. or.).
- Galdera, osasun arloko emaitzen ebaluazio eta informazio sistemetako proiektuei eta aurrerabideei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, arnagailuen lehiaketari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeen buru osasun arloko profesional bat izateko aukerari buruzko foru araudia baliogabetzen duten epaiak betetzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako graduatuei enpleguko goi mailako tituludunen oposizioetara aurkezteko aukerarik ez emateko erabakiari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2022ko lan egutegia (22. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren 2022ko ordutegi ofiziala (23. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, euskarak Nafarroako hezkuntza-sisteman duen egoerari eta etorkizunera begira sustatzeko politikei buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkezturiko interpelazioa, euskarak Nafarroako hezkuntza-sisteman duen egoerari eta etorkizunera begira sustatzeko politikei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Euskaltzaindiak oraintsu iragarri du heldu den azaroaren 19an XXVI. Jagon Jardunaldia egingen duela, euskarak Nafarroako hezkuntza-sisteman duen egoera aztertzeko. "Euskarak Nafarroako hezkuntza-sisteman duen egoera" izenburupean, Akademiak azterketa eta hausnarketa gune bat proposatzen du, gure hizkuntzak gure hezkuntza-sisteman izan beharreko etorkizunaren alde lan egiteko. Parte-hartzaileen zerrenda ikusita, oso litekeena da jardunaldi horretan auzi garrantzitsu eta interesgarriak mahai-gaineratzea, euskara Nafarroako hezkuntza-sisteman bultzatzeko politikak taxutzeari begira, 2019-2023 bitarteko bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako Programa Akordioan jasotzen den gisa.

Hori horrela, jardunaldi horretako konklusioak behin ezagututa, Geroa Baik horri buruzko interpelazio bat proposatzen du, euskarak Nafarroako hezkuntza-sisteman duen egoerari buruz eta etorkizunera begira sustatzeko politikei buruz eztabaidatzeko.

Iruñean, 2021eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: M.^a Roncesvalles Solana Arana

Mozioa. Horren bidez Osasun Departamentua premiatzen da ikerketa-espeditente bat abiaraz dezan, Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta erreaktiboak garraiatzeko zerbitzua ematean ustez izandako irregulartasunak aztertzeko.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita ikerketa-espeditente bat abiaraz dezan, Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta erreaktiboak garraiatzeko zerbitzua ematean ustez izandako irregulartasunak aztertzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

2021eko maiatzaren 17an –astelehena–, “trafiko” istripu batean hil zen langile bat; zehazki, banatzaile bat. Daniel Zugasti zuen izena, eta 23 urte zeuzkan. Osasunbidearentzat lan egiten duen garraio-enpresa batean egiten zuen lan. Pertsona hori lan-istripu batean hil zen, Nafarroako Odol Bankutik Tuterako Ospitalera odola eta erreaktiboak garraiatzen ari zenean.

Gertakari izugarri tragiko eta konponezina. Zoritxarrez, gisa horretako gertakariak biktimenezko nahiz familientzako ondorio negatibo gehiago eragin ditzakete; esaterako, kasu honetan.

Familiak diosenaren arabera, Danielek arazoak zeuzkan enpresaren ibilgailu bat erabili ahal izateko, aldiro zeuden-eta matxuratuta. Hori dela-eta, familiaren ibilgailua erabili behar izaten zuen lan egiteko. Gainera, enpresak ez zuenez bere gain

hartzen AP-15 autobideko bidesariaren ordainketa, Danielek errepide nazionala erabiltzen zuen Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta erreaktiboak garraiatzeko.

Erabaki hori haren kontra bihurtu bide da; izan ere, enpresaren mutualitateak inguruabar hori baliatu du istripua lanekoa ez bestelako istripu gisa katalogatzeko –trafiko-istripu bihurtu du, alegia–, horrek familiarentzat eta Danielen duintasunari begira dakartzan kalteekin.

Kontua da Daniel lanean ari zela, hemoderibatuak eta erreaktiboak Odol Bankutik Tuterako Ospitalera eramaten, eta istripua artatu zuten suhiltzaileek eraman behar izan zituztela produktu horiek.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak enpresa pribatu batekin dauka kontratatuta zerbitzu hori. O-NOZek, halere, ez du istripuari buruzko inolako ikerketarik abiarazi; haien ustez, garraiorako berariazko ibilgailuak behar diren eginkizunetarako ibilgailu pribatuak erabiltzea ez da zerbait irregularra. Eta beste zenbait irregulartasun ere gertatu dira kasu horretan; esate baterako, lanean ari ez den pertsona batek O-NOZen jabetzakoak diren hemoderibatuak eta erreaktiboak garraiatzea.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du ikerketa-espeditente bat abiaraz dezan, Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta erreaktiboak garraiatzeko zerbitzua ematean izandako irregulartasunak zehazteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du, ikusita ezinezkoa dela Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta erreaktiboak garraiatzeko zerbitzua emateko baldintzak betetzen direla bermatzea, baliabide berekiekin eman dezan garraio-zerbitzu hori.

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

F saila:
GALDERAK

Galdera, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan gidarian REACT Next Generation funtsak erabiltzeari buruzkoa.*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan gidarian REACT Next Generation funtsak erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Lurralde Kohesiorako kontseilari, idatziz erantzun diezaion:

Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan gidaria betetzean REACT Next Generation funtsak bilatzeko eta erabiltzeko zer urrats egin dira, Leringo Edateko Uren Araztegia eraikiz planaren ezarpena 2019-2030erako azkartzeko eta Ega ibai bazterreko herriak Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemara lotzea aurreratzeko, Egaren adarraren berrastea aprobetxatuta?

Iruñean, 2021eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Nafarroan eskola-garraioak duen kostuari buruzko azterlana kanpoan kontratatzeari buruzkoa.*MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkezturiko galdera, Nafarroan eskola-garraioak duen kostuari buruzko azterlana kanpoan kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Maria Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Dirudienez, Nafarroan eskola-garraioak duen kostuari buruzko azterlana lehen aldiz kontratatu

da kanpoan. Hori horrela, Geroa Baik honako galdera hau egin nahi du:

Zer enpresari eskatu zaio azterlana? Zein izan da mandatua eta zenbateko kostua izan du?

Iruñean, 2021eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: M.^a Roncesvalles Solana Arana

Galdera, Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeari buruzkoa.**ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Polizieari buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 7. artikuluan aurreikusten da Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea eratzea. Nafarroako Gobernuak noiz aurreikusten du eratuko dela?

Ezer egin al du hori ezartzeko?

Iruñean, 2021eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, toki entitateen finantzaketa taxutzeari buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak toki entitateen finantzaketa taxutzeari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Toki Administrazioako Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Dauden hogeit hamar aldagaietatik zergatik aukeratu dira bost toki entitateen finantzaketa taxutzean aplikatzeko?

Iruñean, 2021eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalek gastuei aurre egin ahal izatea bermatzeko baliatu diren irizpideei buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkezturiko galdera, 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalek gastuei aurre egin ahal izatea bermatzeko baliatu diren irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Toki Administrazioako Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Zer irizpide baliatu dira 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalek gastuei aurre egin ahal izatea bermatzeko behar diren zenbatekoak ezartzeko?

Iruñean, 2021eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, trakzio-ahalmena baliatzen duten udalen determinazioari buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak trakzio-ahalmena baliatzen duten udalen determinazioari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Toki Administrazioako Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Zer irizpide erabili dira trakzio-ahalmena baliatzen duten udalak zeintzuk diren zehazteko?

Zer helburu bilatzen da udal horiek trakzio-gile gisa izendatuta?

Iruñean, 2021eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, 2022an 2021eko finantzaketa bera mantenduko duten udalei buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak 2022an 2021eko finantzaketa bera mantenduko duten udalei buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Toki Administrazioako Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Kontseilariak adierazi zuen 43 udalek 2021eko finantzaketa bera izanen dutela 2022an.

Horrek esan nahi du herri horiek 2021ean jaso zuten diru kopuru bera jasoko dutela eta ez zaiela KPI+2ko igoera aplikatuko?

Iruñean, 2021eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, txertoa jarrita izan arren COVID-19az kutsatutakoei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak txertoa jarrita izan arren COVID-19az kutsatutakoei buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1.- Pfizer-en txertoaren pautu osoa jarria zeukaten zenbat COVID-19 kasu berretsi dira Nafarroan?

2.- Moderna-ren txertoaren pautu osoa jarria zeukaten zenbat COVID-19 kasu berretsi dira Nafarroan?

3.- Janssen-en txertoaren pautu osoa jarria zeukaten zenbat COVID-19 kasu berretsi dira Nafarroan?

4.- Astra Zeneca-ren txertoaren pautu osoa jarria zeukaten zenbat COVID-19 kasu berretsi dira Nafarroan?

5.- Pfizer-en txertoaren pautu osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroan COVID-19a dela-eta?

6.- Moderna-ren txertoaren pautu osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroan COVID-19a dela-eta?

7.- Janssen-en txertoaren pautu osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroan COVID-19a dela-eta?

8.- Astra Zeneca-ren txertoaren pautu osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroan COVID-19a dela-eta?

9.- Pfizer-en txertoaren pautu osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroako ZIUetan COVID-19a dela-eta?

10.- Moderna-ren txertoaren pautu osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroako ZIUetan COVID-19a dela-eta?

11.- Janssen-entxertoaren pautu osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroako ZIUetan COVID-19a dela-eta?

12.- Astra Zeneca-ren txertoaren pautu osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroako ZIUetan COVID-19a dela-eta?

13.- Pfizer-en txertoaren pautu osoa jarria zeukatenen zenbat pertsona hil dira Nafarroan COVID-19a dela-eta?

14.- Moderna-ren txertoaren pautu osoa jarria zeukatenen zenbat pertsona hil dira Nafarroan COVID-19a dela-eta?

15.- Janssen-en txertoaren pautu osoa jarria zeukatenen zenbat pertsona hil dira Nafarroan COVID-19a dela-eta?

16.- Astra Zeneca-ren txertoaren pautu osoa jarria zeukatenen zenbat pertsona hil dira Nafarroan COVID-19a dela-eta?

Iruñean, 2021eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, talde ezezagun baten eraso pairatu duten mugarrak leheneratzeari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak talde ezezagun baten eraso pairatu duten mugarrak leheneratzeari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Iragan maiatzaren 26an, talde ezezagun batek bideo bat argitaratu zuen, zeinean ikusten baitzen Frantziaren eta Espainiaren arteko muga zehazten duten hainbat mugari erazi dituztela. Eraso pairatu zuten mugari horietako bi bederen Nafarroakoan zeuden; zehazki, Baztanen.

Nafarroako Gobernuak ba al du gertakari horien berri? Hala baldin bada, noiz berrezarriko ditu mugari horiek?

Iruñean, 2021eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxeari buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxeari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko Carlos Amatriainek Langileen Batzordearen ordezkari adierazi zenez, ez dauka Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxekeko instalazioak mantentzeko interesik. Aterpetxe hori da Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bitartez zuzenean kudeatzen duen gazteen aterpetxe bakarra.

Aterpetxea Nafarroako Gobernuaren gainontzeko departamentuei eta erakunde autonomoei eskaini zaiela ere adierazi zien.

Migrazio Politiketako Zuzendaritzak instalazioekiko bere interesa adierazi zuen, baina Gobernuko beste departamentu bat aterpetxeaz jabetu ezean pribatizatu egingen dela, edo haren kudeaketa kanpoan kontratatuko dela, ziurtatu zuen.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

- Zuzenean kudeatzen duen gazteen aterpetxe bakarra bada ere, Kultura Departamentuak erabaki du Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxearen instalazioak lagatzea edo pribatizatzea. Zergatik?

- Aterpetxea Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiar lagaz gero, zertarako erabiliko dira aterpetxe horren instalazioak?

- Kudeaketa zuzenean egingen al du Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak, ala pribatizatu egingen da, edo kudeaketa kanpoan kontratatu?

- Instalazioen erabilera beste departamentu bati lagaz gero, zertan eragingen die aterpetxeko langile finkoei edo aldi baterakoei? Aterpetxearekin batera langileak transferituko dira?

- Aterpetxea pribatizatu edo kanporatuz gero, aldi baterako langileen kontratuak amaiaraziko al dira? Eta langile finkoak baldin badira, zer lanpostutan kokatuko dira?

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, barne medikuntzako albokoan kontratuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak barne medikuntzako albokoan kontratuei buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

- 1.- Barne medikuntzako albokoan zenbat kontratu, eta zein egunetan, egin ditu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2016tik hona profila baliatuta, eta ez kontratazio-zerrendaren bidez?

- 2.- Berriazko zer eskumenek justifikatzen dute barne medikuntzako albokoan kontratazioa profila baliatuta egitea, eta ez kontratazio-zerrendaren bidez?

- 3.- Zer negoziatu zen sindikatuekin kontratazio horiek egiteko?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, osasun arloko emaitzen ebaluazio eta informazio sistemetako proiektuei eta aurrerabideei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, osasun arloko emaitzen ebaluazio eta informazio sistemetako proiektuei eta aurrerabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Osasun arloko emaitzen ebaluazio eta informazio sistemak direla-eta legegintzaldi honetan egin diren proiektuen eta aurrerabideen zerrenda.

2.- Osasun arloko emaitzen ebaluazio eta informazio sistemak direla-eta Osasun Departamentuak legegintzaldi honetan egin nahi dituen proiektuen eta aurrerabideen zerrenda.

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, arnasgailuen lehiaketari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak arnasgailuen lehiaketari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2021eko otsailaren 15ean, parlamentari naizen honek informazioa eskatu nuen (10- 21/PEI-00228) Nafarroako Gobernuak pandemiaren hasiera egindako arnasgailuen lehiaketari buruz, zeina hutsik gelditu baitzen.

Martxoaren 18an, Osasuneko kontseilariaren erantzuna jaso nuen, baina erantzun gabe utzi zituen hainbat galdera; hortaz, egun horretan berean berretsi egin nuen informazio-eskaera, zeinari zazpi hilabete geroago erantzun baitzion Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak; hain zuzen ere, 2021eko urriaren 14an.

Erantzunean, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak ez dio erantzuten Nafarroako Gobernuak lehiaketara aurkeztu ziren enpresarik harremanik izan ote duen jakitearren eginiko galderari, eta aitortzen du ez ziela inolako laguntzarik eman lehiaketara aurkeztu ziren enpresei, baina hori ez dator bat, antza, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko

kontseilari zenak esandakoarekin parlamentari honen galdera bati erantzunez (10-20/POR-00152) 2020ko maiatzaren 14ko Osoko Bilkuran: “haiei laguntzen jarraituko dugu”, “prototipo aurreratuenekin harremanetan gaude eta ea ezer ateratzen den”.

Gainera, Osasuneko kontseilariak informazioeskariari (10-21/PEI-00228) emandako erantzunean aitortu zuen lehiaketan ez zuela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sendagile intentsibista batek ere parte hartu.

Hori dela-eta, honako galdera idatzi hau aurkeztu dugu, Nafarroako Gobernuak departamentuek modu koordinatuan erantzun dezaten arazoizko epe batean; izan ere, 8 hilabetez itxaron behar izan dut –otsailaren 15etik urriaren 14ra– gai honi berari buruz aurkeztutako informazioeskaria (10-21/PEI 228) aintzat har zedin, eta jaso

dudan erantzuna ikusita honako galdera idatzi hau aurkeztu dut:

1.- Nafarroako Gobernuak zergatik egin zuen arnasgailuen lehiaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sendagile intentsibista batek ere parte hartu gabe?

2.- Nafarroako Gobernuak zergatik ez da harremanetan jarri eta ez die hitz emandako laguntzarik eman arnasgailuen lehiaketara aurkeztu ziren enpresei?

3.- Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du lehiaketa horren beharraz, epeez, hartutako konpromisoez eta lehiaketa hutsik geratu ostean proiektua bertan behera utzi izanaz? Gobernuaren ustez, hasierako asmoa desagertu egin da?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeen buru osasun arloko profesional bat izateko aukerari buruzko foru araudia baliogabetzen duten epaiak betetzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeen buru osasun arloko profesional bat izateko aukerari buruzko foru araudia baliogabetzen duten epaiak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarrean Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Ia bi urte igaro ondoren, Osasun Departamentuak bete al ditu Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2019ko abenduko epaiak, zeinen bidez baliogabetzen baita Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeen buru osasun arloko profesional bat izateko aukerari buruzko foru araudia?

Bete ez baditu, zergatik ez dira bete epai horiek? Osasun Departamentuak zer ekintza eta zer epetan egin nahi ditu?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako graduatuei enplegu goi mailako tituludunen oposizioetara aurkezteko aukerarik ez emateko erabakiari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako graduatuei enplegu goi mailako tituludunen oposizioetara aurkezteko aukerarik ez emateko erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak zer iritzi dio Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako graduatuei enplegu goi mailako tituludunen oposizioetara aurkezteko aukerarik ez emateko erabakiari?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-21/PES00237), zeinean argibideak eskatzen baititu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren hizkuntza planari buruz. Hauxe da

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariaren erantzuna:

Testuingurua: plan hori ezartzeko, 4. puntuan zehaztutako jarraibideei jarraitu diegu. Antolamendu-egitura eta jarraipena.

Horretarako, departamentuak hiru teknikari eta departamentuaren hizkuntza planaren bost arduradun izendatu ditu.

Lehenengo bilera bat egin zen plana aurkezteko, eta, gero, zenbait bilera tekniko ere egin ziren departamentuak izendatutako pertsonen eta Euskarabideak hautatutakoen artean, planaren garapenari eta ezarpenari buruzko aholku- eta akonpainamendu-lanak egiteko.

Departamentuaren eta Euskarabidearen artean etengabeko lankidetzat dago Plana inplementatzeko.

Horretaz gainera, azarorako departamentuarterko batzorde teknikoaren bilera bat programatu da.

Departamentuaren hizkuntza planaren ezarpenean parte hartzen duten pertsonak 2020ko azaroaren 4an prestakuntza jaso zuten, eta hurrengo hilabeteetarako beste prestakuntza-ekintza batzuk planteatu dira.

Plana garatzeko, besteak beste honako unitate hauekin elkarlanean ari gara:

- Departamentua (planaren arduradunak, koordinazio-teknikariak, idazkaritza teknikoak, kabineak)

- Euskarabidea (Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua-Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua)

- Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoa

- Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia

– Zertan dago Garapen Ekonomiko eta Enpresarietako Departamentuaren hizkuntza planaren garapena? Zein da departamentu honetan ezarritako sei helburuen baitan zehaztu diren jarduketatiko bakoitzaren betetzeko epea?

Jarraian, honako hauek zehaztuko ditugu: hizkuntza-planaren jarduketatikoak, unitate arduraduna eta ezarritako helburuen betetze-egoera.

1. helburua: lehenetsitako unitate organikoetan hizkuntzaren derrigortasuna ezartzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Lehenetsitako unitateak identifikatzea, derrigortasunari dagokionez	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua (EAPGZ)	Egina
Plantilla Organikoan sartu beharreko lanpostu elebidunen kopuruari buruzko txosten-proposamena egitea	Departamentua	Egina
Balorazioa egin ondoren, txostena Funtzio Publikora igortzea, sindikatuekiko negoziatioa hasteko	Departamentua	Egina
Proposamena negoziatzea Funtzio Publikoaren Negozio Mahaian	Departamentua, Euskarabidea eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia	Datozen hilabeteetan
Sindikatuekiko negoziatioaren ondoren, hizkuntza-eskakizuna esleitu beharrekoa duten lanpostuak zehaztea	EAPGZ eta FPZN	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleituta daukaten lanpostuei buruzko txosten teknikoak egitea	EAPGZ	Datozen hilabeteetan
Txosten teknikoak aztertu ondoren, behin betiko onestea Plantilla Organikoan hizkuntza-eskakizuna eduki beharreko lanpostuak	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Lanpostuen proposamena Funtzio Publikora igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Departamentuak, Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuarekin lankidetzan, derrigortasuna dela-eta lehentasunezkoak diren unitateak identifikatu ditu. Identifikazio hori egitean lehenetsi egin dira planean ageri ez ziren beste lehentasunezko unitate batzuk, eta hizkuntza plana aldatu egin da irailaren 20ko 81/2021 Foru Aginduaren bidez.

Ondoren, Departamentuak lanpostuen proposamen bat egin du, identifikatutako lehentasunez-

ko unitateei dagokienez. Proposamen hori EAPGZra bidali da, aholkularitzarako eta lanpostuen egokitasuna egiaztatzeko.

Jarraian, lanpostu-proposamenerako txosten teknikoak egin dira, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari igorri zaizkio, berrikus ditzan.

Datozen hilabeteetan aurreikusita dago helburu horren jarduketa-ildo guztiak aurrera eramatea.

2. helburua. Lehentasunezko unitate organikoetara esleitutako departamentu-langileei euskarazko prestakuntza eskaintzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Prestakuntza Atalari hizkuntza-eskakizunen behin betiko proposamena igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atalari eskatzea Ikaskuntza eta Hobekuntza Plan bat taxutu dezan	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleitu ez zaien langileen komunikazio-premiak aztertzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Departamentuari ikaskuntza eta prestakuntza plan bat aurkeztea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Prestakuntza plana inplikaturako pertsonen beharren arabera egokitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Plana onestea eta langileen prestakuntza hastea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Ikaskuntza eta prestakuntza gauzatzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan

Helburu hau gauzatu ahal izateko, hizkuntza-eskakizunen proposamenak behin betikoa izan behar du. Lehen jarduketa-lerro hau garapenean dago, eta 2022ko lehen hilabeteetan gauzatuko da.

3. helburua. Behar diren neurriak hartzea, eskatzen duten pertsoneri arreta euskaraz eman dakien

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Hizkuntza-irizpideen gida bat idaztea, herritarrei arreta bi hizkuntzetan emateko	EAPGZ	Garatzen ari da
Jardute-protokolo bat zehaztea, arreta bi hizkuntzetan emateko hizkuntza-irizpideen gida aplikatzeko	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Gida nola jendearenganatuko den erabakitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Euskarabidea aholku-zerrenda bat prestatzen ari da, lehen erantzun presentzial edo/eta telefonozkoa emateko. Departamentuak hori ezagutzeko protokolo bat eginen du.

4. helburua. Herritarrei idatzizko informazioa (digitala eta paper bidezkoa) ele bitan ematea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Itzulpen-beharren koordinazioaren eta idatzizko dokumentazioa analizatzearen ardura izanen duten pertsonak/unitateak izendatzea	Departamentua	Garatzen ari da
Gabeziak eta hutsak identifikatu eta lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua	Egina, garatzen ari da
navarra.es atariaren arduradunarekin koordinatzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Egina, garatzen ari da
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webekin lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webetarako aurreikustea zein baldintza bete behar dituzten elebidunak izateko	Departamentua	Garatzen ari da
Departamentuaren aplikazioak direla-eta lehentasunak ezartzea, elebidunak izan daitezten	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
Inprimaki eta formulario elebidunak eskaintzea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapideen fitxak ele bitan argitaratzeko prozedura	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapide-fitxa guztiak ele bitan argitaratzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Gardentasunaren Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehaztea	Gardentasunaren Ataria eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Itzulpen-eskaerak egiteko jarraibideak egitea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Egina

Departamentuak sistema berri bat jarri du, Euskarabideak diseinatu, itzulpenak eskatu eta kudeatzeko. Zerbitzu bakoitzeko pertsona bat edo gehiago izendatu dira, eta horiek izanen dira eskaerak egiteko baimena dutenak; halaber, departamentuaren eskaera guztien arduraduna izendatu da. Euskarabideak tresna informatiko bat eskuratu du, hura erabiltzeko jarraibideak eman ditu, eta eskatzaileei prestakuntza eman die.

Hizkuntza planaren 2.4 puntuan komunikazioen eta baliabideen diagnostikoa egin zen, eta osatzen ari da.

Gardentasun Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehazteko garaian, lehentasuna eman zaie aurreproiektuei eta foru lege eta foru dekretuen proiektuei. Horretarako, Gobernuaren Idazkari-

tzako eta Araugintzako Zerbitzuak komunikatutako prozedura bat badago.

Gaur egun, pandemiaren inpaktua dela eta, lehentasuna eman zaio informazio digitalaren arloko jarduketak egiteari. Esparru horretan, Aurrerapen Digitalerako Zerbitzuak, hala eskatzen duten departamentuei, elebidunak izateko egokiak diren formatuetan eskaintzen dizkie webetarako eta aplikazioetarako euskarriak.

Kontuan hartuta lehentasuna eman zaiela informazio digitalaren arloko ekintzei, bi eremutan jardun dugu batez ere: web orriak eta izapideak.

Departamentua lanean ari da navarra.es Atariaren Atalarekin eta Euskarabidearekin batera, navarra.es-en ostatatuta zerbitzuak eta izapideak eskaintzen dituzten web orri propioen eta gaikako

weben diagnostikoa egiteko eta ele bitan egon daitezten beharrezkoak diren ekintzak egiteko. Horrez gain, Departamentua eta Euskarabidea navarra.es ataritik kanpo ostataturiko web propioen diagnostikoa egiten ari dira.

Arlo horretan egindako ekintza guztiek erantzuten diote herritarrengan eragin handiagoa izatearen irizpideari.

1. Web orriak

1.1. Web orri propioak

Lehenik eta behin, web orri propioak identifikatu dira. Jarraian, haien hizkuntza-egoeraren diagnostiko bat egin da. Aldi berean, identifikatu egin dira webetara eramaten diren informazio-fluxuak eta aipatu web orrietan egiten diren edizioen eta ekintzen arduradunak. Hori eginda dagoelarik, jardunerako protokolo bat taxutzen da departamentua, Euskarabidea eta, kasua bada, weben arduradunak koordinaturik, edukien jarraipena, zuzenketa, itzulpena eta edizioa egite aldera.

Edozein ekintza egiteko orduan, lehenetsuna ematen zaie herritarrengan inpaktu handiena dutenei.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren kasuan hauek dira identifikatutako web orri propioak:

- Nafarroako Turismoaren web ofiziala
- Nafarroako Nazioarteko Plana

Horien hizkuntza-egoera honako hau da:

– Turismoaren web ofiziala: plataforma eguneratu egin da eta Euskarabidea arduratu da itzulpenez. Web orria bi hizkuntzetan dago, turismo profesionalentzako atala izan ezik. Departamentua Euskarabidearekin harremanetan ari da etengabe, atal horren itzulpena amaitzeko.

– Nafarroako Nazioarteko Plana: Euskarabidea Nazioarteko Proiektzioaren Zerbitzuarekin harremanetan jarri da web orri hau euskaratzeko asmoz. Web orri hau gaztelaniaz dago.

1.2. Gaikako web orriak

Gaikako web orriak, izenak adierazten duen bezala, gaien lotuta daude, eta ez departamentuei, zeren eta gaiak, orokorrean, egonkorrek baitira eta departamentuak, berriz, legegintzalditik legegintzaldira alda baitaitezke. Esparru honetako lana, hala eta guztiz ere, departamentuekin egin da.

Gaikako weben kasuan, departamentua da edukiak sortzeko ardura duena, eta navarra.es Atariaren Atala, berriz, haren kudeaketaz ardura-

tzen den unitatea da. Web horiek nahiko estatikoak dira, eta gaur egun berrikusiak, gaurkotuak eta formatu berriz jantziak izaten ari dira. Modu koordinatuan lan egiten ari da departamentuaren, navarra.es Atariaren Atalaren eta Euskarabidearen artean, gaikako web horiek hobetzeko-lanak (azala, izapideak eta beste web eduki batzuk barne) egiten direnean, web orri elebidunak sor daitezten.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren kasuan hauek dira identifikatutako gaikako web orriak: Erantzukizun Soziala eta Empresas y Profesionales. Horien hizkuntza-egoera honako hau da:

- Erantzukizun Soziala: gaikako web hau euskaratu eta eguneratu egin da, Euskarabidearekin eta navarra.es Atariaren Atalarekin elkarlanean. Gaur egun bi hizkuntzetan dago gaikako web hau.

- Empresas y Profesionales: gaikako web honek zenbait departamenturen atalak biltzen ditu eta ez da elebiduna. Oraindik eguneratu gabe dago, baina navarra.es Atariaren Atala eta Euskarabidea lanean ari dira, eguneratze prozesua amaitzen denerako gaikako web hau elebiduna izan dadin.

2. Izapideak

Izapideei dagokienez, ikusten ari da denboran egonkorrek diren izapide batzuk badaudela, epe jakin batzuk badituztenak.

Lehenetsunak ezarri dira jarduketa-irizpideetan, izapideak elebidunak izan daitezten, eta lanean hasi gara denboran egonkorrek diren eta erabiltzaile gehiago dituzten izapideak ere prestatzeko.

Horretarako, izapideen, sarrera-kopuruaren eta izapide horiek editatzen dituzten pertsonen diagnostikoa egin da, eta, aurreko puntuan bezala, departamentuarekin, Euskarabidearekin eta navarra.es Atariaren Atalarekin lankidetzan ari gara.

Izapide egonkorren itzulpena egiteko protokolo bat taxutu da, eta izapide-editoreei prestakuntza ematen ari zaie, lan hori autonomiaz egin dezaten.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren kasuan, denboran egonkorrek diren 103 izapide identifikatu dira, guztira. Hasierako diagnostiko horretan ikusi dugu 18 izapide daudela bi hizkuntzetan eta eguneratuta. Zenbait izapide euskaratuta daude, baina informazioa ez dago eguneratuta.

Departamentu honen izapideen konplexutasuna nabarmendu behar da. Oso luzeak izaten dira, estekaz josiak, eta hainbat dokumentu edukitzen

dituzte erantsita. Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuaren izapide guztiak euskaratu dira: bost, guztira. Gainerako zuzendaritza nagusien izapideen konplexutasuna dela eta, bi izapide euskaratu dira Lan Zerbitzuan eta S3 Proiektu Estrategikoen Zerbitzuan. Zenbait izapide itzulpen prozesuan

daude, eta gaur egun izapideen % 24,27 daude ele bitan Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuan. Euskarabidea eta departamentua elkarlanean ari dira izapideak euskaratzen jarraitzeko. Hurrengo asteetan irizpide zehatzak adostuko dira itzulpenean aurrera egiteko.

5. helburua. Herritarrak artatzen diren espazio fisikoen errotulazioa eta informazio elebiduneko elementuak (bulegoak, arretaguneak): hizkuntza -paisaia.

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokietarako	EAPGZ	Egina
Fitxa osatzea jardun behar den tokietarako	Departamentua	Egina
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokien diagnostikoa egiteko	EAPGZ	Egina
Diagnostikoa osatzea unitate bakoitzeko langileekin	Departamentua	Egina
Fitxa aztertzea proposamena egiteko	EAPGZ	Egina
Itzulpen Atalera bidaltzea	Departamentua	Egina, garatzen ari da
Elementu berriak jartzea	Departamentua	Egina, garatzen ari da
Lanpostuen identifikazioa diseinatzea	EAPGZ	Egina
Lanpostuak identifikatzea	Departamentua	Egina, garatzen ari da

Hizkuntza-paisaia

Errotulazio-txostena

Errotulazioaren gaineko txostena egin da, eta hizkuntza-paisaiari buruzko informazioa biltzeko erabili beharreko metodologia adostu dute Euskarabideko teknikariek eta departamentuko solaskideek. Horretarako, errotulazioaren argazkiak egin eta egoitza eta/edo lehentasunezko unitate bakoitzari dagozkion fitxak osatu dira. Horiek egiteko, aprobeztatu egin dira, kasu batzuetan, Euskarabideko teknikariek Departamentuaren egoitzetara eginiko bisitak; eta, beste batzuetan, Departamentuko pertsonak egin dituzte. Txostena 2021eko ekainaren 18an aurkeztu zaio departamentuari.

Aipatu txostena egiteko, honako egoitza hauek aztertu dira:

- Departamentuaren egoitza nagusia (Tomás Caballero parkea)
- Turismo Zuzendaritza Nagusia (Navarrería)
- Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzua, Amaia kalea
- Nazioarteko Proiektzioaren Zerbitzua (Arrieta kalea)

Hona txostenetatik ateratako datu orokorrak: ele bitan daude egoitza nagusia, Kontsumo Zerbitzua eta Nazioarteko Proiektzioaren Zerbitzua. Egindako diagnostikoan ikusi da Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia gaztelaniaz dagoela.

Proposamenak: errotulazioa bi hizkuntzetan duten egoitzetan errotulazioaren aldaketa txikiak proposatu dira, departamentuak onartu egin ditu, eta aldaketa horiek egin dira Nazioarteko Proiektzioaren Zerbitzuan eta departamentuaren egoitza nagusian. Turismo Zuzendaritza Nagusirako proposamenak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren bitartez eginen dira. Egoitza horretan Nafarroako Gobernuak zenbait departamentuk tokia partekatzen dute, eta horregatik proposamenak beste modu batera eginen dira.

Identifikatzaileak, pinak

Euskarabideak pinak eta mahai gaineko identifikatzaileak sortu ditu, eta Departamentua hizkuntza-eskakizuna duten langileen eta eskatzen duten pertsonen artean horiek banatzen ari da, herritarrek jakin ahal izan dezaten zein unitetan ematen den zerbitzu elebiduna.

6. helburua. Zerbitzu publikoak adjudikatzeko hizkuntza-irizpideak ezartzea

Zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpresen diagnostiko bat egiten ari da. Heldu den urtean garatuko da.

– Egin al da departamentuaren plantilla organikoan beharko liratekeen hizkuntza-eskakizunen zehaztapena? Hizkuntza plan berriaren arabera, zenbat lanpostutan ezarriko da profil elebiduna? Zein izanen da, guztira, departamentuan izanen diren lanpostu elebidunen portzentajea?

Lehenago esan bezala, lanpostuen proposamenaren gaineko txosten teknikoa egin da eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari bidali zaio.

Momentuz, ezin da lanpostuen proposamenari buruzko datu zehatzak eman, zeren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langile fun-

tzionarioen eta estatutupekoen Negoziazio Mahai Orokorrean negoziazio-prozedura gauzatu behar baita, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen duen moduan. Prozesu hori datozen hilabeteetan egitea aurreikusi da.

Eman daitezkeen datuak plantillaren egungo egoerari buruzkoak dira. Departamentuak oinarrizko 123 lanpostu ditu guztira, eta horietatik bakararra ere ez da elebiduna.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2021eko irailaren 29an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2022ko lan egutegia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak aurkeztutako proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak horri buruz adierazitako adostasunaz, honako hau ERABAKI DA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2022ko jaiegunen eta egun berezien egutegia. Honako hau da:

– Uztailaren 6a, 7a, 8a, 11, 12a, 13a eta 14a: Sanferminetako jaiegunak.

Azaroaren 29a: San Saturnino jaieguna.

Urtarrilaren 7a jaiegun deklaratzeko.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko Administrazioarako oro har ezarritakoak.

2. Ohiko lanaldia gaur egun indarra duen berbera izanen da; hots, eguneko 7,5 ordukoa, astelehenetik ostiralera.

Uztailean, abuztuan, urtarrilaren 9ra arte eta iraileko lehen hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00etatik 15:00etara bitartekoa. Betiere, egunean 6 ordu eta erdiko lanaldia egin beharko da.

3. Urteko gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

1) Goiz eta arratsaldeko txanda.

Langileek astean behin izanen dute txanda hau, Legebiltzarraren beharrezanek horretarako modua emanez gero, eta gehienez ere astean bi aldiz. Zerbitzburuei dagokie txanda zehaztea.

Ordutegia 08:45etik 17:30era bitartekoa izanen da, bazkarirako ordu eta laurdeneko atsedenaldirik bat barne, zeina 15:00ak baino lehenago egin beharko baita. Ordutegi-malgutasuna 09.15era bitartekoa izanen da sartzeko, eta 18:00etara bitartekoa ateratzeko, Legebiltzarraren beharrezanek horretarako modua emanez gero.

2) Goizeko txanda jarraitua.

Gainerako astegunetan eginen dute langileek.

Ordutegia 07:30etik 15:00etara bitartekoa izanen da, sartzeko 09:30era bitarteko ordutegi-malgutasunarekin eta irteteko 17:00etara bitartekoa-ekin, Legebiltzarraren beharrezanek horretarako modua emanez gero.

3) Arratsaldeko txanda jarraitua edo goiz eta arratsaldeko txanda.

17:30etik aurrera egiten diren parlamentuz kanpoko ekitaldietarako, Mahaiak erabakiko du, zerbitzburuek proposaturik, zer langile diren derrigorrezkoak, eta horiek zehaztea zerbitzburuei dagokie.

Langile horiek zilegi izanen dute 7:30 orduko iraupeneko arratsaldeko txanda jarraia egitea, ekitaldiaren bukaera-ordu aurreikusian amaituko dena, edo goiz eta arratsaldeko txanda bat, iraupen eta bukaera-ordu horiek berak izanen dituenak. Bukaera-ordua ezin izanen da 19:30etik haragokoa izan.

4. Urteko 1.560 lanorduren kopurua lortze aldera, langileek erabilera libreko hiru ordu eta erdi hartu ahal izanen dituzte 2022. urtean zehar.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2022ko ordutegi ofiziala.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 107. eta 109. artikuluek ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Ezartzea hauxe izanen dela Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2022. urterako:

Uztailean, abuztuan, urtarrilaren 9ra arte eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian:

– Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 14:00etara.

– Uztailaren 6an, 7an, 8an, 11n, 12an, 13an eta 14an itxita egonen da, eta egun horiek balio-gabeak izanen dira ondorio guztietarako.

Urtarrilaren 10etik ekainaren 30era, irailaren bigarren hamabostaldian eta urritik abendura bitartean:

– Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 17:30era.

– Ostiraletan: 09:00etatik 14:30era.

– Urtarrilaren 7an itxita egonen da, eta egun hori balio-gabea izanen da ondorio guztietarako.

2. Baliogabeak izanen dira, halaber, larunbat, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

